

Lehen aipatu dugun bezala gure enpresak EkoBizi izena du, urte luzez gure bezeroekin gertutasun handia izatea lortu dugu. Gertutasun hori modu ezberdinetara lortu dugu. Lehenik eta behin, web-orri bat dugu gure lana eta proiektu guztiak ikustarazteko eta gainera, arropa saltzeko, ahala, bezeroak eskabideak egin ditzazkete, denda fisiko batera joan beharrean, kostu asko dituelako. Beraz, dudak baldinbadituzte, asistentzia pertsonala ere ematen zaio bezeroari.

Mota ezberdinetako bezeroak ditugu baina, gehien bat Euskal Herrian, gobernuan, udaletxean eta itsasoan lan egiten duten jendea da. Izan ere, itsasoan ibiltzen diren pertsonen onurak ekartzen dizkigu. Gertutasun berezi hori ekintza ezberdinen fruitu izan da, lehenik eta behin, enpresa sortu genuen egunetan aurkezpen bereziak eman genituen gure mezua argi ikusteko. Bertara, jende asko gerturatzen eta, gainera, interes mordoaz azalarazi zuten. Bezero berriak etortzeko, web-orrian bideoak eta argazkiak igoko ditugu benetan egiten dugun lana ikusteko. Horretaz gain, bezeroak gure proposamenean lotuta egoteko hilabetero egun finkoak jarriko ditugu eta ekintza bereziak egingo ditugu esaterako, ikastola ezberdinetara joango gara gure proiektua azaltzera eta umeak ere kontzientziazteko.